

Hainbat txapeldun arratiar pelota txapelketa desbardineta

10. eta 11. orrialdeak

Musik & Beer eta Dimetal jaialdiak

Areatzako Musik & Beer jaialdiaren antolatzaileak eta Dimako Dimetalekoak, jaialdi bi honeetan joko daben hainbat talde iragarri ditue. Areatzako Musik & Beer maiatzaren 29 eta 30ean izango da eta Dimetal urri lehenengoaren 25 eta 26an. Kris Barras Areatzan eta Soziedad Alkoholika Diman dira iragarritako taldeetako batzuk. **12. eta 13. orrialdeak**



Atutxa txapeldun Bizkaikoan eta Astondoa txapeldunorde Euskal Herrikoan

11. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

331

2020ko urtailaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Prat Urzainkik irabazi dau ipuin erotikoen lehiaketeta

Idazle nafarraren *Sokada baten hiru muturrak* izan da epaimahaiaren ustez onena. Bigarren saria, Durangora joan da; Josu Unzuetak jaso dau *Ilargiaren abestia* lanagaitik. Arratiako onena, Bediako Karlos Aretxabaletarentzat izan da *Ortizmugan larrua jo leike* narrazinoagaitik.

Lehiaketara 17 lan aurkeztu dira, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik. Egileak, gizonetako (%70) helduak izan dira gehienak. Partaideen batz besteko edadea 42 urtekoa izan da. Gazteena 22 urteko neska bat eta zaharrena 72 urteko gizona izan dira. **8. eta 9. orrialdeak**



Urtea hasteko ekintza ugari



Gabon sasoiko kultura ekitaldiak jarraituten dabe urte hasierako lehenengo egunetan, batez be umeai zuzendutakoak, Erregeen Kabalgatak, barbarako. Edade guztietako jentek izango dau antzerkera joateko aukerea. Dokumentalak, kontzertuak, berbaldiak, zineak eta urtekerak osotuko dabe eskaintzea. **5. orrialdea**

IGORRE

Araluceko beharginak greba amaitutzat emon dabe

Urtailaren 2an dira beharrera itzultzekoak, baina konkursoko administratzailearen esku dago langileak sartzea ala ez. Abenduaren 27an, epaitegiak ipinitako konkursoko administratzaile baten zuzendaritzapean, Araluceetik trokelak eroan ebazan BATZ kooperatibeak Ertzaintzaren operatibo handi baten laguntzeagaz. Negoziazinoak blokeauta, auzia epaitegian eta itxierea konkursoko administratzaile baten ardurapean, Batz-Araluceko 141 lanpostuak ez daukie etorkizun argirik. **7. orrialdea**



LEMOA

Harrera protokoloa ipini dau martxan Lemoako Udalak

Abenduaren 12an, atzen 6 hilabeteetan erroldatutakoak konbidatu eta lehenengo harrera saioa egin eban Udalak. Hurreratutakoai, udal zerbitzuak aurkeztu eta herriko alkarteak eta herritarraz, alkar ezetuteko ekitaldia egin eben. Herriko alkarteak ipinitako kopauagaz amaitu zan saioa. Harrera gida, euskeraz eta arabieraz, euskeraz eta errumanieraz eta euskeraz eta ingelesez argitaratu dabe. **5. orrialdea**

ARRATIA

2020ko kontuak onartu dabez Arantzazuk, Areatzak, Dimak eta Ubidek

Abenduaren 4an, onartu ebazan aho batez udal kontuak Ubidek eta abenduaren 17, 18 eta 19an, Arantzazuk, Dimak eta Areatzak, hurrengo hurrengo.

Inbersinoai jagokienean, batez be, eraikin publiko eta bideen konponketa eta txukuntze lanak egingo ditue herri guztietan. Arlo sozialari jagokonean, Areatzan, bakardadeari aurre egiteko proiektu bat ipini gura dabe martxan; Diman, gizon eta andren arteko bardintasunerako diru partidea %50 igon dabe eta Ubiden, jaioten diran umeen familiak diruz lagunduteko 1.800 euroko partidea dago 2020ko aurrekontuetan. **5., 6. eta 7. orrialdeak**

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Literatura txokoa

MIÑAN

"Liburu hau Ibrahima Baldek idatzi dau, ahoz eta Amets Arzallus Antiak idatzi dau, eskuz". Berbok topauko doguz *Miñan* izenburutzat daukan liburu honen lehenengo orrian, eta halan da. Irakurleok berba idatziak irakurriko doguz, baina era berean, liburuan kontetan dan istorio gogor, gordin eta latza bizi izan dauanaren ahotza entzun geinke ia-ia. Hain da hurbilekoa, hain da gardena, hain da bat-batekoa kontetan dan guztia, Ibrahima Balde ginearra aurrez aurre daukagula emoten dauala.

Oso gazte, oso ume zala itxi behar izan eban liburuko protagonisteak amaren etxea, urira joan eta bertan bizimodua irabazteko. Baina hori ez da txarrena izango, izan be orrietan aurrera joan ahala kontakizuna gero eta garratzagoa

bihurtzen da. Afrikako zati handi bat zeharkatu behar izan eban mendebaldetik ekialdera, ez Europara etorteko gogoz, egoerak behartuta baino. Danerik bizi (sufidu) behar izan dau bidean; gosea, egarria, beroa, nekea, tortura. Etsipena.

Herria itxi behar izan eban momentutik hasi eta Europara iritsi zan arte gelditu barik kontetan dau bizitakoa Ibrahima, gelditu barik, gogora jatorrena bota, botaka. Eta bestaldean gagozanok, liburuan bestaldean, itsasoan bestaldean, ezin ba sofán "komodo komodo" jesarrita irakurri liburu, baldin eta bihotzik badaukagu.

Ibrahima Balderen berbak transkribiduten dauz Arzallusek liburu honetan. Topauko dogun hizkuntza

oso bizia da, bat-batekoa, horretan jaioa da Amets. Protagonistea fula etniakoa da eta euren hizkuntza pularra da. Liburuan pularrezko berba asko topauko doguz, frantsesez be bat baino gehiago, eta hainbat onomatopeia: pausuen soinu, tirohotsak... honek guztionek istorio gogor hau hurbilago bihurtuz, eta latzago, ahal bada.

Guretzat itsasoa zabala eta neurri baten ezezaguna da, basamortua oindino ezezagunago, kasik-kasik fikzioa. Baina txarrena da, hau ez dala fikzioa, hau errealidadea da, errealidade triste; izan be, Ibrahima dinoan moduan, "itsasoaren gainean jesarten zarenean bidekurutzte baten erdian zagoz. Edo bitzta edo heriotza".

Nerea Goioaga Uriarte

Amets Arzallus Antia eta Ibrahima Balde

Miñan

Susa argitaletxea

152 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abenduaren 30etik urtailaren 5era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 6tik 12ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 13tik 19ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goina Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gomez Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzio burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tirada: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen keak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Galazo



Ekintza bat ez betetera derrigortzea da galazotea: Hau da, aginduta dagoan zeozer egiten itxi ez. Galarazo be idatzi izan da bizkaiko tradizioan (galáso ahoskatuta). Esate baterako: "Galazota dago hemen pelotan olgetea". Gaur egun debekatu aditza erabilten bada be zabal, gure artean beti esan izan dogu galazo. Bada beste bigarren esangura bat be: enbarazu edo traba egin. Batuan oztopo egin. Eta azkenik, inori zeozer galdutea eragitea: denporea, dirua, giltzak... Batuan, galarazi litzateke.

ERETXIA

Aurreikusten

Irakurle, zure baimenagaz Zea-nuriko Nostradamus izatera jolastera nator. 2020. urtea itxartu barri dan honetan, hamarraldi barria taupadaka hasi jakun honetan, arratoiaren urtea ei dan honetan, igarle lanari heldu gura deusat. Ekin daiedan, beraz, hilez hileko nire aurreikuspenai.

Urtaila. Hilaren 24a Hezkuntzaren Nazinoarteko Eguna da. Gero eta gertuago usaintzen ari garan zantzu batzuri erreparatuta, aspaldiko serioen hartu beharrean gagoz egun hau. Gure hezkuntza sarean "Viva Franco!" edo "Viva Vox!" lango aldarriak ohikoegi bihurtzen ari dira. Bildurgaria. Gure nerabeak ultraeskoia alternatiba politiko legez normalizetan dagoan garaian hazi-heziko dira. Zorionez baina, zentzua eta argudioak alde daukaguzanez, eztabaida eregitzaileak suspertuz, gorrotoan oinarritutako ideologia perbertso hori neutralizetako pausu sendoak emoteko urtea izango da 2020a.

Zezeila. Bigarren hilabete honek aurten, egun bat gehiago dakarsku opari, 29a. Bezpera, 28a, gaixotasun arraroak sufrituten dabezanen eguna izango da eta jagokienak, egun estra hori, gaixo horreen arreta, terapia eta ikerketen inguruko ebatzi eraginkorrak hartzeako baliatuko dabe.

Martia. Martian, M8. 2020a mugari izango da genero bardingtasunaren gaian. Jentea, salbuespenak salbuespen, gero eta kontzientziatuago dago alor honetan. Gehiago gitxiago, dagoaneko, danok ulertzen dogu andrak irabazten badabe, danok irabaziko dogula. Izan daitela holan. Ez. Holan izango da!

Aprila. Hilabete honetan, besteak beste, ama lurraren eguna zelebrauko dogu. Darabilan tono baikorri eutsiko deusat gai honeguz be, badakizu zergaitik? Ez daukagulako beste aukerarik. Alarma guztiak dagoz biztuta, benetan dago ahul gure planetea



EÑAUT INTXAURRAGA

Irakaslea

eta erdibideko neurriak hartuta ez goaz inora. Horregaitik hain zuzen be, erabatekoa izango dan iraultzea jaiotzear dago.

Maiatza. Maiatzaren 1ean kontuak baltz. Dinoenez, 2040rako, langileen %50ek lana galduko dau teknologiaren ordezkapen prozesuak eraginda. Bistan dago zein dan joerea: erdi mailako klasea murrizten ari da, langabezi tasak gorantza doaz eta ongizate gizarteak gehiago dauka iraganetik etorkizunetik baino. Eredu kapitalista honek ezin dau luze iraun. Hamarraldi honen hasikerak atzera bueltarik bako eraldaketa bateri helduko deutso ezinbestean.

Bagila. Udabarri amaierak bandera espainolez josiko dau Bilbo. Normaltasun irudi baten bila dabilzanak jai izango dabe baina. Euskaldunok ez gara horretarako jai. Sormen ariketa eder bat egiteko aukerea eskaini deuskue eta baliatu egingo dogu. Europari eta munduari lur honeetan mende luzetan herri berezi-berezi bat bizi garala erakutsiko deusagu. Baginala, bagarala eta izango garala demostretako kamarak eta mikroak jarriko deuskuez, guk eskatu barik gainera. Zorionekoak

gu.

Uda. Garagarri-abuztueta jaiak. Eta jaietan jente sanoa, jente mozkor sanoa eta jente mozkor leloa. Eta leloentzat lelo asko salgai: "Ez beti da ez", "Neuk erabakiten dot zelan jantzi eta noz eta noren aurrean erantzi", "Erasorik ez erantzunik barik"... Zentzudun ausartan konplizidadeak ekarriko dau erasotzaileen bakartzea. Azkenetan dagoz, eurenak egin dau.

Urriak. Urrietan agertzen dogun energia gitxitan agertzen dogu urteko beste hilabeteetan. Eta urritik gitxi eukiko dabe aurtengo urria gure neba-arreba katalanentzat. Aurtengo "Diada" erabakiorra izango da, zorrotz dabiz segalariak, atzera egiteko intentzino txikerrenik barik. Alde daukiezanak: Europako haizeak eta hori baino eraginkorragoa dana: kontzientzia garbi.

Zemendia. Itsasoaren bestaldean, zemendiaren 3an, hauteskundeak. Trumpen kontrako *inpeachment*aren zirimolea protagonista bihurtu da azken asteotan. Amesgaiztoa amaitzear dago. Munduak ez dau pizti narzisista, manipulazaila, arrazista, misogino, fanatiko, odol txarreko honen goitik beherako begiradarik gehiago sufrituko.

Abendua. Amaitzeko, gatzaren gurera. Abenduak ekarriko deuskuna handia da. Oin dala urte biko Euskaraldia ederra izan bazan, aurten biziko doguna ez da ahaztekoa izango. Hizkuntza ohiturak aldatzeko aurrekaririk bako ariketa sozial masiboa da urtearen hondarrea biziko doguna. Helduen aktibazioa dau oinarri ariketa honek eta nago Euskaraldi hau inflexino puntu eder bat izango dala mundua euskeratik eta euskeraz bizi gura dogunontzat.

Honaino nire aurreikuspenak. Bai irakurle, ados, aurreikusi dodan dana baikorregia dala leporatuko deustazu. Eta? Nire ariketea horretan zetzan. Ezkortasuna garai hobeak datozenerako ixtea ebatzi dot. Urte amaierak esango dau zertan asmatu dodan eta zertan ez. Bitartean, urterik ederrena opa deusut. Jagon zaitetz.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Euskaraldia Batzaren jaiak

MONDRAGON

LUMATUTEN**URTZI BARRENETXEA****Pisuzko argumentuak**

Dana egin guran eta ezertarako astirik barik gabizanez, ez dakit zertan pentsetan nengoan tren-geltokirako bidean ninoiala, eta, antza, ez naz gaur eguneko errealidadeak eskatuten dauan behar besteko aretagaz ibili espaloitik. Arazoa handik gitxira igarri dot, hatsa oinetakoetatik sudur pareara ailegau jatanean.

Txakur jaubearen familiagaz akordatzeagaz batera, zapaldu aurretik hausnarrean nenbilan kontu bategaz lotu dot gertatutakoa, neuronon kontzientzia-aurreko konexino horreek medio.

Izan be, gure seme-alabai fantasia munduetan murgiltzeko aukerak emotea ondo ete dagoan pentsetan ibili naz; alde batetik, argi dago ikuskera propioa garatu eta irudimena zabaltzeko gaitasuna emoten deuten ariketea dala. Halanda be, adinagaz arean errealistak izatea gura badogu, ez ete

dogu euren mundu ikuskerea finkatzen hasi beharko txikitatik? Halan uste dot; behintzat, animalia jagokienez. Guretzako berandu izan lei gauzak argi eukiteko, baia umeakaz sasoiz gabiz.

Esango dogu nire zalantza pisuagaz lotuta dagoala; izan be, biomasaren adierazleak hor dagoz: planetako izaki bizidunak kontuan hartuta: gizakiak+abereak+maskotak: %97 pisatzen dogu. Bestelako faunak, %3.

Konturatu gara dokumentaletan ikusten doguzan taldeetako otso bakotzeko 2.000 txakur dagozala munduan? Kalkuluaren arabera, 400 miloe dira etxekotutako kanidoak. Eta bardin bestelako animalia askogaz: 900.000 bufalo afrikar dagozan lekuan 1.500 miloe behi daukaguz. Edota, 50 miloe pinguino existitzen dirala, baina 200.000 miloe oilo.

Beste modu batera esanda, gure planetako animalia handi (kilo paretik gorakoak) guztiak hartu ezker, hamarretik bederati edo gizakia da edo etxeko aberea.

Gauzak holan, nire semearen kasuan, animaliazalea bera, dituan liburu guztiak baztertu eta errealagoak eskaini behar ete ez deusaguzan pentsetan dot. Eta fauna basatiari buruzko argitalpenak dinosauroenakaz bat egin, edo alegiazko printzesen eta dragoien generora pasau. Edo gitxienez, argi erakutsi Enkarterrietako otso baten errastoak ikusteko probabilitatea baino bi mila bider handiagoa dala txakur batenak zapalduteko aukerea.

ZERTZEAN**MARTIN ORTEGA MURO****BEGI TXINDORRA**

Dimatik zehar, plazan zein auzoatan, alboan ikusi zeinkien kartel piloa agertu dira, eta ikusita herrian sortu dan interesa, kanpaina horri azalpena emoten gatoz.

Bai, BAGATOZ! Gogotsu gatoz, Dima ondo informauta eukitea dalako gure helburua, eta horretarako beharrean gabiz.

Bai, BAGABIZ! Ez gara ez bat, ez bi, ez hiru... talde polita osotuten gabizelakoan gagoz, eta ilusinoz beterik hasiko dogu urte barria.

Baso eta mendietan bideak marketako era kolektiboan egiten diran harri multzoak dira Cairnek. Multzo horreek personok sortuten doguz, herria be geuk egiten dogun moduan. Cairnek bidea marketan dabe, eta guk Dima hobe baterantzako norabidea hartu gura dogu.

Dimako herritar guztiak herriko gorabeheran inguruan jakitun egotea gura dogu, eta gure informazio sarera konbidatuten zaitugu. BAZATOZ? Etxerik etxe zabalduko dogun lehenengo eskuorriagaz batera WhatsApp-eko difusino zerrenda baten izena emoteko aukerea eukiko dozue danok eta zuen ekarpenak be jasoko doguz email bidez.

Laster eukiko dozue eskuartean neguko alea!

Dimako EH Bildu



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 801
R.P.S. 3/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Eroitz
Lanbideari Agertu
Auzoaren gurek osatzen

ARRATIA

Gabonetako sasoia ez da amaitu



Erredakzioa

Gabonetako programa batzuk ez dira amaituten urteagaz batera eta horregaitik, udalak eta alkarteak antolatuta, kultura eta aisialdirako jarduerak dagoz aukeran Arratian eta Zeberion.

Sasoi honetako klasikoak diran Erregenetako Kabalgata ikusteko jente ugari bilduko da Areatza, Bedia eta Igorren. Antzerkiai jagokienean, Igorreko Lasarte Aretoan, umeentzako *Mari Errauskin* eta nagusientzako *Yllana Teatroaren Gag Movie* aitatu behar dira. Bediaoak, Bilboko Arriaga Antzokira joango dira *Ali Baba eta berrogei lapurrak* opera ikusten.

Filmak, txangoak eta umeentzako tailerrak be ez dira faltauko urteko lehenengo egunetan.

Arantzazu

Urtailak 4, zapatua

Herri urtekera Gasteizera: izotz pis-tea, katedrala...

Areatza

Urtailak 2, eguena

19:00etan, *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentala udaletxeko Areto Nagusian.



Urtailak 5, domekea

18:30ean, Erregenetako Kabalgata. Karpon hasita eguraldi ona egin ezker, ostean plazan.

Arratia

Urtailaren 2tik 4ra

Neguleku ibiltariak Arratian zehar. Areatza, Igorre eta Lemoako Gaztelekuak antolatuta.

Artea

Urtailak 2, eguena

18:00etan, Mimaia Antzerki Taldearen, *Peloloco* txotxongilo ikuskizuna Kultur Etxean.

Bedia

Urtailak 3, barikua

17:00etan, urtekera familiarra Arriaga Antzokira *Ali Baba eta berrogei lapurrak* operara.

Urtailak 5, domekea

18:30ean, Erregenen Kabalgata, aurretik txokolatea bananduko da.

Dima

Urtailak 5, domekea

Dimako koruak egoitza bietan emonaldia eskainiko dau.

Igorre

Urtailak 2, eguena

11:30-13:30 eta 16:30-19:30, Motxoganen tailerrak aterpean.

Urtailak 3, barikua

20:00etan, Yllana Teatroaren *Gag Movie* Lasarte Aretoan.

Urtailak 4, zapatua

18:00etan, antzerkia *Mari Errauskin* Lasarte Aretoan.

Urtailak 5, domekea

18:30ean, Erregenen Kabalgata Mandoia kaletik.

Lemoa

Urtailak 2, eguena

19:00etan, berbaldua *Zer gertatzen ari da Iruñea-Veleian? Euskalduntze berantiarra?* Gaztetxean.

Urtailak 3, barikua

2012 eta 2015 bitartean jaiotakoentzako ludotekako urtekera.

Urtailak 5, domekea

23:00etan, Stankeik-en kontzertua Karabie Gaztetxean.

Urtailak 6, astelehena

Garbiketea Karabie Gaztetxean.

Zeanuri

Urtailak 3, barikua

09:00etan, Iruñeara urtekera.

Zeberio

Urtailak 3, barikua

19:00etan, zinea euskeraz *Leo da Vinci: Mona Lisa misioa* udaletxean.



LEMOA

Atzen 6 hilabeteetan erroldatutakoak konbidata, harrera saioa egin dau Udalak

Abenduaren 12an, Lemoako Udalak lehenengo harrera saioa egin eban, atzen 6 hilabeteetan erroldatutakoai udal zerbitzuak aurkeztu eta herriko alkarteak eta herritarrek ezetu arazoteko.

Erredakzioa

Sei familia eta hiru norbanako hurreratu ziran bertara eta Udalak harrera gidak banandu eutsezan. Beste batzuen artean, han egon ziran Lemoako eskupelota taldeko kideak, Guraso Elkartekoak, Lemoa Harrerakoak, Gaztetxe-koak eta zinegotziak.

Izan be, Udalak harrera protokolo bat diseinatu dau Emun enpre-seagaz, herrian erroldatzen diran guztiari harrera egiteko. Udalaren arabera, aniztasuna, garapen eta barrikuntza iturri da eta desbardinaren arteko alkarbizitzak komunitadea aberasten dau. "Ondo etorria emoteko, harrera gida prestatu eta hainbat hizkuntzatan publikatu dogu: euskeraz eta arabieraz, euskeraz eta errumanieraz eta euskeraz eta ingelesez".

Harrera ekitaldia

Ondo etorria emoteko, Durundi Barri Dantza taldeko gazte bik agurra jantzatu eben. Ondoren,

Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak Harrera protokoloaren zergaitia azaldu eta herrian dagozan zerbitzuak aurkeztu eban. Herriko alkarteak ekarritako kopauagaz amaitu zan saioa.

Zerbitzu gida

Gida alkatearen ondo etorria eta herriaren ezagaurriakaz hasten da. Auzuneak eta intereseko lekuak, (osasun zentroa, eskolak,

udaletxea, gaztetxea, kiroldegia, jubiladuen etxea, eta abar) mapa baten kokatuta agertzen dira. Ondoren zerbitzuen informazioa dago. Erroldatzea, Enplegua, Etxebizitza, Osasuna, Hezkuntza, Euskara ikasteko baliabideak, Kiroldegia, Arratiako Musika Eskola, Haur, Nerabe, Gazte eta Adinekoentzako zerbitzuak, Gizarte zerbitzuak, Bardintasun saila eta Kultura ataletan bananduta dagoz. zerbitzuak



AREATZA

Bakardadeari aurre egiteko proiektu bat ipini gura dau martxan Udalak



Erredakzioa

Abenduaren 19an onartu ziran Areatzan 2020rako Udal kontuak EH Bilduren eta EAJ-PNVren aldeko botoakaz. Udalak 1.491.762 euro kudeatuko ditu aurten.

Aurrekontuok egiteko herritarren aldetik 30 ekarpen inguru jaso ebezala dinoe udal iturriak. "Gobernu taldeak danak aztertu ditu eta, posible izan dan neurrian, udal aurrekontuetan txertatu dira".

Gasturik handienak udal langile eta gastu arruntak dira, 1,1 milioe inguru eta inbersinoetarako 240.000 euro inguru dagoz. Baina batez be arlo soziala indartu gura dabela dinoe udaletik. "Oin arteko egitasmo batzuei jarraipena emongo jakie, esaterako gazteen alokairuak ordaintzen lagunduteko deialdia egingo da, eta herriko gazteak beste herri batzuetako gazteakaz batera atzerri bidaiatzeko proiektuagaz be jarraituko da". Eta barrikuntza moduan, 2020an bakardadeari aurre egiteko proiektu bat ipini gura dau martxan Udalak, "bakarrik dagozan herritarrei laguntza emoteko", batez be edadekoai.

Ekonomia jarduerak bultzatzeko 28.000 euro inguru bideratuko ditue eta inbersinoetan aitatu behar dira, besteak beste, gazteleku ekipetea, saneamentu konponketak eta HAPORen lehenengo faseari ekitea. Hainbat proiektu jarraipena izango dabe; gas hornidurearen azterketak eta eskola barriaren proiektuak, berbarako. Eraikinen Azterketa Teknikoari bultzada emotea be aurreikusi dau Udalak.

IGORRE

Walter Pack-ek 60 lanpostu baino gehiago sortu ditu 2019an

Erredakzioa

Walter Pack, batez be automobilgintzarako apaindutako gainazal eta pieza teknikoan diseinuan eta fabrikazioan espezializatutako Igorren dagoan enpresa da. Enpresako iturrien arabera, automobilgintzak mundu mailako krisia sufridu arren, Igorren, 60 lanpostu baino gehiago sortu ditue 2019an, gehienak Arratiako beharginakaz bete diranak.

2019ko hasieran, Walter Pack-ek aliantza estrategikoa sinatu eban munduko ibilgailuetako barruko fabrikatzaile handienetako bategaz, Grupo Antolinegaz, hain zuzen be. Holan, Grupo Antolinek, Walter Pack konpai-



niaren akzioen %40 eskuratu eban. Walter Pack 1992an sortu zan eta, bederatzi filialetan, gutira 40 miloe euroko fakturazioa eta 400 langile ditu. Ekoizpen plantak, Amorebietan, Bartzelonan, Alacanten, Indiako Pune eta Delhin eta Mexicoko Queretaron dauka.

LEMOA

Herri Txiki, Infernu Handi ETBko saioaren ekitaldia grabauko dabe kiroldegian

Erredakzioa

Urtailaren 16an, iluntzeko 20:00etan, kiroldegiko kantxan egingo da saioaren ekitaldiko grabaketa. Han, alde aurretik Lemoan grabatutako alkarrizketak egongo dira ikusgai. Baita Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadiren bakarrizketak eta Sebastian Lizasoren bertsoak be. Giro ona eta barreak bermatuta dagoz grabazio ekitaldia ikusten doazenentzat.

Ekitaldia bideoaren proiektzioagaz hasiko da. Han, Lemoako bizimoduaren alderik bitxiena erakutsiko dabe umorez alkarrizketatutako herritarak. Ondoren ikusitakoaren gainean egingo ditue euren bakarrizketak Gurrutxagak eta Pagadik eta Sebastian Lizasok Lemoari buruzko bertsoak



Lemoa.

botako ditu.

Herri Txiki Infernu Handi, 2015eko urtailaren 4an estreinau zan eta atzen urteotan, ETB1en emitidu dan saiorik arrakatsuenan da gaur egun.

Saioan, Arantzazu, Dima, Igorre, Ubide eta Zeanuri ikusi ahal izan doguz daborduko. Hilaren 16an, Lemoakoa grabauko dabe.

ARANTZAZU

Argiñeon bidea konponduteak lehentasuna izango dau

Erredakzioa

Argiñeon errekeak bide zati bat kendu dau eta hori konponduteko 15.000 euro dagoz abenduaren 17an onartu ziran 2020ko Arantzazuko aurrekontuetan. EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu ziran eta 492.000 euro ingurukoak dira.

Beste diru partida garrantzitsu bat, 18.000 euro, Herriko Taberna atondu eta konponduteko izango da.

Dirua ipini ez arren, aurreko urteko gerakinagaz horniduteko, hiru proiektu zabaldu dira. Bekoetxe eta Zalbideren artean farolak ipintea da horreetako bat. "30.000 euro inguru izango dira, baina aurrekontuetan ez da agertzen, euro bategaz zabaldu dogu partidea, aurrerago gerakinagaz horniduteko" azaldu deutso BEGURI Asier Aburto Arantzazuko alkateak. Plazea eta eleiza arteko bidea atondu eta efizientzia energetikorako dira beste biak. Atze-

nengo honetarako 7.000 euroko partidea dago. "Eraikin publikoen azterketa bat egiten gabiz, nondik hasi behar garan jakiteko" dino alkateak.

Behargintza

Behargintzako bulego bat zabaldu eta oin Errota Fundazioak egiten dauan behar hau publiko-ara pasetako asmoa dago aspaldi Arratian. EAJ-PNV agintean dagoan udaletan, atzera egin daben arren, badaezpada, 1.500 euroko diru partidea dago 2020ko kontuetan.

EAJ-PNV kontra

Kontrako botoa emoteko errazoietakoa bat da, jeltzaleen ustez, Udalak ez dituala politika eraginkorrak onartu emergentzia klimatikoari aurre egiteko. Beste alde batetik, gerakina handia dala eta onartu ez ziran hainbat proposamen egin ebezan jeltzaleak. Alkateak jentearen arretarako daukan ordutegiari be eskasa eristen deusie EAJ-PNVkoak.

DIMA

Xabier Sanchez kondenau dabe De Miguel auzian

Erredakzioa

De Miguel auzian, batez be Arabako jeltzaleak inplikautu egon arren, (Alfredo de Miguel EAJ-PNVko Araba Buru Batzarreko kidea izan zan eta Arabako diputadua 2007tik 2010era bitartean) kondenautako hiru lagun Bizkaiko afiliaduak dira: Iñaki San Juan, Josu Montes eta Xa-

bier Sanchez Robles. Atzenengo hau, Diman bizi izan da oraintsu arte.

Sanchez Robles Jauraritzako Kultura Saileko Gazte eta Ekin-tza Komunitarioko zuzendari izandakoari 7 urte eta hilabete bateko kondenea ezarri deusie eta 3.600 euroko isuna, dirua bigabe erabilteagaitik, influentzia trafikoagaitik eta zilegia ez dan

UBIDE

Aho batez onartu ditue 2020ko aurrekontuak

Erredakzioa

Abenduaren 4an bozkatu, eta Ubideko Herri Kandidaturaren eta EAJ-PNVren aldeko botoakaz onartu ziran udal kontuak. Holan, Udalak, 307.898,92 euroko aurrekontua dauka aurtengorako, igaz baino 7.000 euro inguru gehiagokoa.

Diru partidarik handienak ondatsun arruntak eta zerbitzuetarako izaten dira eta aurtun be, diru kopururik handienak emon beharreko zerbitzuak pagetako izango dira. Ha-ta guzti be, jaiotzagaitiko familiari emoteko diru laguntzak emoteko, 1.800 euroko diru partidea dago.

Inbersinoai jagokienean, Ubideko diru gehiena azpiegituretako inbersinoetan gastetan dau eta obrak diru-laguntzen menpe egoten dira. Igaz kaleko argiak eta saneamentu sareko arazoak konponduteko izan ziran diru-laguntzak. Aurtengo aurrekontuan be azpiegituretarako 30.500 euro dagoz.

alkarteko kide izateagaitik.

De Miguel Auzia

Arabako Probintzia Auzitegiak frogatuzat emon dau, Alfredo de Miguel-ek, Koldo Ochandianok eta Aitor Telleriak, trama bat osotu ebela komisinoak kobretako eta, modu irregularrean, erakundeetako kontratu eta esleipen publikoak lortzeako.

Emondako sententziak, 15 persona kondenau eta beste 11 ez erruduntzat jotzen dauz.

Sententzia irmoa izan arte, kautelazko neurriakaz libre dagoz kartzela zigorrera kondenauta izan diranak.

Olaxte
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaxteoptik@hotmail.es

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA
eileke
• Psikologia
• Logopedia
• Fisioterapia
• Ulermen tailerra
• Jarrera arazoak
• Emozioen tailerra
• Psikomotrizitate
• Adimen emozionala
• Trebetasun sozialak
• Estimulazio goietiarra
• Eta askoz gehiago...
652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili-Kili
Antzoa eta Puzibulak
Lehendakari Agirre 10 · IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 61

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERA
Eskola, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 631 64 83 - 908 804 019



DIMA

Mantenimenturako aurrekontuak onartu ditu Dimako Udalak

EAJ-PNV eta Dime Aukeraturen (DA) aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz, abenduaren 18an, 2020rako aurrekontuak onartu ziran behin-behinean. Udalak 1.693.250 euro kudeatuko ditu.



Aurrekontuak onartu ziraneko plenoko irudia.

Erredakzioa

2019ko aurrekontuetako diru partidarik handiena plazearen berrantolaketarako izan bazan be, prozesuaren bigarren faserako 190.000 euro egozan; aurten ez dago diru partidarik horretarako. Beraz, plazearen berrantolaketeari jagokonez, "momentuz ez da aurreikusten ezer. Batez be, auzoak daukaguzalako hor; auzoetan egin behar dogu indarra. Herria ez da bakarrik plaza ingurua, bederlatzi auzo daukaguz, herri txiki moduan egiten dabenak lan eta horreetara be ailegau behar da" azaldu deutso BEGITURI Josu Gorospe Dimako alkateak. Ildo horretatik eta inbersinoai jagokienean, 2020ko aurrekontua "gehienbat bideratuta dago herriko mantenimendu, garbiketa eta konponketetarako". Dana dala, proiektu handi bat be badago. "Frontoiaren erabilpena aztertu beharko dogu oso sakon, ikusteko zeintzuk diran daukazan beharrak eta proiektu oso handi bat egingo da". Proiektuak hainbat urte hartuko ditu, eta 2020an proiektua egitea eta "martxan ipintea" aurreikusten da.

Arlo sozialari jagokienean, gizon eta andren arteko bardintasunetarako diru partidea %50 igon dala azpimarratu dau alkateak, 3.000 eurotik 4.500 eurora pasauz, eta "irisgarritasunari be emon deusagu indarra, ze herriko leku batzuetara ailegetako arazoak dagoz".

Udalbiltza

Aurten ez da diru partidarik egongo Udaltzainetarako. Izan be, Udalak

Udalbiltzatik urtetea onartu eban Osoko Bilkuran, EAJ-PNV eta Dime aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. "Atzen bost urteotan, 17.000 euro pagau dira kuotetan eta ez da ezelango egitasmorik ipini martxan herrian" azaldu eban lurdana Acasuso EAJ-PNVko zinegotziak.

EH Bilduk bere aldetik, Udaltzainetza Euskal herriko udaletxe eta hautetsiak batzean dituan erakunde publiko bakarra dala ekarri eban gogora eta ebatzia hartu baino lehen, 2020an egin eitekeana aztertuteko, arduradunak hartu-emonetan ipintea eskatu eban.

Plenoa egin zan eguneko arratsian, 40 lagun batu ziran EH Bilduk deituta talde argazkia egiteko sarretarako kartelaren alboan, hartutako ebatziari desadostasuna agertuteko.

EH Bilduk kontrako botoa

EH Bilduk aurrekontu honeen kontrako botoa emon eban, inbersinoak %12,3 jeisten diralako, gastu korrontea %6,4 igoten dalako, Udaltzainetari ez jakolako ekarpenik egiten eta "hainbat puntu azalpen barik ezin diralako ulertu, dirua zertara joango dan" ez dagoalako argi.

Araluce

Osoko Bilkuran Araluceko beharginai babesa emoteko hiru mozino aurkeztu ziran; Araluceko ordezkarienta, EAJ-PNVrena, eta, hirugarrena, EH Bilduk eta DAK aurkeztutakoa. Atzenengo hau onartu zan.

Aurreko adierazpen batzuen harira kaltetutako herritar biri DA plataformako zinegotzi baten parkamen eskea egon zan.

IGORRE

Araluceko beharginak greba itxi eta urtailaren 2an euren lanpostuetara itzultzekoak dira

Holan amaiera emoten deusie zemendian hasitako grebari.

Erredakzioa

Dana dala, beharrera itzultzeko asmoa izan arren, konkursoko administratzailearen esku dago beharginak sartu ahal izatea ala ez. Eta lanpostuetara itzultzean, lan batzordeak aztertu beharko dau, zelango eragina izan dauan Batz-Araluceran lana aterateko kapazidadean, kooperatibeak Araluce hustu izanak.

Izan be, abenduaren 27an, epaitegiak ipinitako konkursoko administratzaile baten zuzendaritzapean, Aralucetik trokelak

eroan ebazan BATZ kooperatibeak Ertzaintzaren operatibo handi baten laguntzeagaz. Egun osoan zehar izan zan kamioien joan-etorria, beharginak kanpoan protesta egin bitartean. Greba batzordeari jarduna ikuskatzen fabrikara sartzea galarazo eutseen eta Batz-Araluceko beharginak, Lan Ikuskaritzan BATZen kontrako salaketea ipiniko dabela iragarri dabe.

Zemendiaren 8an greban hasi ziranetik, Batz-Araluceko beharginak atxikita euki dabe materiala protesta moduan, baina Bilboko



Abenduaren 27ko operatiboaren irudi bat.

ARRATIA

Maiatza eta martira arte luzatuko diran ikastaro bi hasiko dira oingo hamabostaldian

Erredakzioa

Ilgoran, Arratiako Andren Jabe-kuntza Eskolak, urteko lehenengo hamabostaldian, ikastaro bi hastea dauka programatuta. Urtilaren 10ean, Inma Merino de Castrok gidatutako *Autoconocimiento* y *autoestima* ikastaroa abiatuko da. Ikastaroa Igorreko Kultur Etxean izango da eta zazpi saio izango

ditu, maiatzaren 15era arte. Hilaren 15ean barriz, Monica Nuñez eskutik, *Soñar, crear y crear* ikastaroa abiatuko da. Martiaren 18ra arte izango da eguaztenero 18:00etatik 20:00etara Lemoako Kulturgunean.

Aurreko ikasturtean Inma Merinok izen bereko ikastaroa emon eban arren, oingoa ez da aurrekoaren errepikapena izango, ezta

Merkataritza arloko 2. Epaitegiak Araluceko instalazioen barruan egozan trokelak eta piezak BATZek erretiratu ahal izateko eskakizunari baiezkoa emoten eutsan auto baten bidez, BATZ kooperatibeak dalako han egoan produktzioaren jaubea. BATZen arabera, produktzioaren "bahiketea" arriskuan ipinten eban BATZen etorkizuna eta oin horreekaz pagauko deutseezala Aralucekoai zor deutseezan nominak adierazo dabe BATZetik. "Trokel eta produktu horreek, oin dala asteak entregatu behar jakiezan atzen bezeroai. Araluceko enpresak produktuon bahiketeari ekin deutso negoziatuzino estrategia moduan, bere soziedadeari eta langilegoari kalte larria eraginez, bezeroai arrisku handia eraginaz eta, kooperatibeari kalte eginez" azaldu deusie BEGITURI BATZetik.

Kapitalismo basatia

ELA eta LAB sindikatuak erasotzat jo dabe abenduaren 27koa. ELAK, "Euskal Herrian aurrekaririk bako eraso" dala dino eta BATZ eta Mondragon korporazioaren jarduna txarresten dau. "MCC taldea kapitalismorik basatienaren moduan portatzen dabil, nahiz eta balio sozialak defendiduten dituala esan" eta Araluceran itxiera geldituteko deia egiten dau.

LABek be eraso larritzat dauka. "Eraso hau edozein kasutan larria dan arren, oindino larriagoa da kontuan hartzean badogu ebatzia hartu dauana Batz-Araluceran jaube dan BATZ kooperatibeak dala. Ustez bestelako baloreak defendiduten dituan enpresa bategin ezin dituz edozein enpresa kapitalistak hartuko leukezan ebatzi berak (edo okerragoak) hartu". Borondaterik balego, urtenbideak topatzeko aukerea dagoala uste dau LABek eta alkarlanerako deia egiten dau.

bere jarraipena be. "Gaia oso zabala da, autoestimearen lanketea, bizitzako sano prozesu luzea izan daiteke, bizitza osokoa, akaso". Saioak 18:00etatik 21:00etara izango dira.

Amets kolektiboa gauzatzen

Soñar, crear y crear ikastaroan, Monica Nuñez laguntzeagaz, taldekideak amets kolektibo bat gauzatuko dabe. Tailerraren helburua, amets bat errealidade bihurtzea oztopatzen dauan edozein idea edo sentimentu gainditzea da. *Dragon dreaming* metodologian oinarrituta eta teknika desbardinez taldekideak, modu kolektiboan zeozer amestu, adostasun batera heldu eta formatzaileagaz batera, hori gauzatzeko emon behar diran pausuak egingo ditue.

ARRATIAKO KALENTURAK IPUIN EROTIKOEN LEHIAKETEAK

Ernesto Prat Urzainki "Little"ren "Sokada baten hiru muturrak" lanak irabazi dau Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketean

Nafarrak, genero bako sexu istorio bat kontetan dau, irakurlea harrapatu eta momentu baten be interesa galdu ezin dan narrazio honetan. Bigarren saria, Durangoko Josu Unzueta Ajuriarentzat izan da, *Ilargiaren abestia* lanagaitik. Arratiako onenari saria, Bediako Karlos Aretxabaleta Ormaetxeak eroan dau, *Ortizimugan larrua jo leike* ipuinagaitik.



Ernesto Prat Urzainki "Little".

Erredakzioa

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen lehenengo edizinoa irabazi dauan Ernesto Pratek daborduko ibilbide bat dauka idazle moduan. Izan be, hiru nobela ditu argitaratuta (*Hiru ilargi laurden*, 2012; *Orpoz orpo*, 2014, eta *Telleria eta gero, zer?* 2017) eta sariak be jaso ditu beste ipuin lehiaketetan.

Ernesto Prat Urzainki, "Little", Berriozar herrian jaio zan 1978an. Nekazaritzari eta zurgintzari lotutako ikasketak egin ebazan eta alor askotan egin dau behar: mendiko peoi, euskera irakasle, zerbitzari, musikari... Skalariak taldeagaz sei urte egin ebazan tronpetea jotzen eta Kalapite musika taldeko kide

be izan zan. AEKn euskaldundu zala, eta atzenengo hamarkada bitan Baztanen bizi izan dala be kontau deutso BEGITURI.

Lekarozen bizi zara, ez da?

Bai, Lekarozen bizi naz. Lekaroz Baztango herri txiki bat da, Elizondotik hur dago. Oin langabezian nago baina atzen lau urteotan Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatzen daben Enplegu Babestuko monitoria izan naz. Lantalde bat sortzean dabe errenta bermatua jasoten dauan jenteagaz, Baztango mendi, herri eta eskoletan hainbat lan egiteko. Eta lan horreek antolatzea, koordinetea eta gauzatzea zan nire ardura.

Argazkia: Antzasti Museoa.

2020

"Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean, begirada osoan begituten beti" Gontzal Mendibil

begitu
errotia urdila ezberria

Urte barri on!

Zeintzuk dira zure zaletasunak? Sokada baten hiru muturrak ipuinean ikusten da eskaladaz asko dakizula. Eskalatzea da horreetako bat?

Eskalatza joan izan naz nozonoz baina ez naz eskalatzailea. Berez espeleologoa naz. Aurten, kobazuloetako zenbait tokitan soltura gehiago irabazteko, eskalatza joan izan naz, entrenamentu moduan. Hasikera baten ipuina ateraldi espeleologiko baten girotzea pentsau neban baina lurraren erraiak lar hotzak begitandu jatazan Arratiako Kalenturak berotzeko. Ohartu barik, eskalada girora joan jatan istorioa.

Kontau zure literatura ibilbidea. Hiru eleberri kaleratu dozuz, ez da? Azaldu apur bat eleberrien nondik norakoak.

Errepresino politikotik igesean nengoanean hasi nintzan idazten, egutegiari eta erlojuari denporearen burrukea irabazteko asmoz. 2012an *Hiru ilargi laurden* eleberria argitaratu neban, Baztango Metaziri kolektiboagaz. Arkeologiak eta Kristobal Kolon aurreko Hegoamerikako kulturak presentzia handia daukie kontakizunean. 2014an, Txalaparta argitaletxeko Literotura sailean, *Orpoz orpo* eleberri erotikoa argitaratu neban. Guardia Zibila gazte protagonistearen bila joaten da lehen atalean eta, atalez atal, ezustekoz betetako igesaldiari ekiten deutso gazteak, politika, umorea eta sexua nahasten dituan traman zehar. 2017an *Telleria eta gero, zer?* nobela baltza argitaratu neban Elkarren Ateko Bandan sailean. Lekarozen, herritarren borondatearen kontra aurrera eroan gura daben Aroztegiako proiektu turistiko espekulatuarean gatazkan dago oinarritua liburuko trama eta Lurra izeneko neska gazte punkia da protagonistea. Bestetik, *Hotzak* eleberria eta igesean nahiz espeleologian idatzitako kronikak, testuak eta ipuinak *arnoesklabuendako.blogspot.com* blog personalean argitaratzen dodaz.

Ipuinak be idazten dozuz eta hau ez da irabazi dozun sari bakarra. Zeintzuk dira jaso dozuzan beste sariak?

2009 urtean Pyrenaicako Mendi Ipuinen IV. Lehiaketa irabazi neban *Free Peltier Little Horses* lanagaz eta 2012an Iruñeako Udalak antolatutako Egile Berriendako Euskerazko XXIII. Lehiaketaren hirugarren saria emon eusten *Lozen izan nintzen* lanagaitik.

Zein izaten da zure idazte prozesua?

Lehenik idea etorri behar jata burura, ezpabere ez naz ordenagailuaren aurrean ipinten. Ondoren asmoa garatzeko idea nagusiak zerrendatzen dodaz, berba batez edo esaldi batez, eta

idea nagusi horreek garatzeari lotzean naz. Batzuetan buruan neukanaren antzekoa ateraten da, beste batzuetan, gehienetan, sano gauza desbardina. Idazteko prozesua irekia izaten da, aberasgarria, eta, eskema itxietan tematu barik, bidean sortzean diran argudioak libre eusten deutset.

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketa irabazi dauan ipuina lehiaketarako eginda dago ala alde aurretik eginda zeunkan? Zelan sortu zan?

Sokada baten hiru muturrak ipuina Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketarako idatzi neban. "Hitzen uberan" atariaren bidez izan neban lehiaketaren barri eta atakia polita iruditu jatan neure buruari zeozer idazteko erronka paretako. Burua lanean hasi zan hasikerako idea zaparradea sortuz eta, gauzak apur bat ordenatuta egozanean, ordenagailuaren aurrean jarri nintzan idaztera.

Ez da egin dozun lehenengo narrazio erotikoa eta nobela baltza be gustukoa dozu. Kontau apur bat.

Baztango Idazleekin solasean irakurle taldeko kidea naz, baita Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatzen dauan (H)ilbeltza kolektiboko kidea be. Erdal literaturearen gaindosiaren aurrean euskerazko literatureak Euskal Herrian, eta batez be Baztanen daukan eta izan dauan lekua aldarrikatzeaz gainera, genero baltzak aukera parebakoa eskaintzen

dau gure jendarte ustelen lotsak lau haizetara hedatzeko. Bersino ofiziala poderearen bersinoa da eta, Euskal Herrian ondo asko dakigun moduan, gehienetan ez dauka zerikusirik egiagaz. Nobela baltzetako protagonista askok egia bilatzen dabe, gertaeren bersino ofizialaren gainetik, eta holan eragiten dira askotan genero baltzeko tramak.

Irakurle moduan, nortzuk dira gehien gustetan jatzuzan idazleak? Erreferenterik baidakuzu?

Erreferenteak bai, jakina, baina ez modu argian. Danerik irakurten

dot eta irakurketa baktoren eragina hor dago, gehiago ala gutxiago nabaritu arren. Edozein modutan, literatura politikora eta literatura politikoki ez zuzenera joteko tendentzia izaten dot. Literatura kinkia ere sano maite dot, edo kinkiz betetako literatura.

Zelan ikusten dozu euskal literaturea? Eta euskal literatura erotikoa?

Egia esateko ez jata lar interesetan euskal literaturearen giro orokorra. Sano giro intimista bilatzen da askotan eta panfleto politikoiari bildur handia dago. Literatura gauza serioa da Euskal

Herrian, serioegia. Eta burgesa. Egunkarietako kritika literarioak irakurten dodazanean, gehienetan ez naz ados egoten. Sarritan, egurtu daben liburua gustau egin jata eta laudorioz josi dabena infumablea iruditu jata. Eta euskal literatura erotikoren kasuan... bada, ez dala existiduten esango neuke. Ez dakit literatura erotikoa irakurten dan Euskal Herrian baina, irakurten bada, argi dago ez dala euskeraz irakurten. Gaur egun euskeraz argitaratzen dan literatura erotikoa ikustea baino ez dago. Kri-kri, kri-kri... Basamortua dago.

Arratiako Kalenturak Ipuin Lehiaketaren lehenengo edizinoaren hainbat datu

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketako lehenengo edizino honetan, hamazazpi narrazio lehiatu dira; Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik bialdutakoak. Bizkaiatik 10 ipuin ailegau dira: Bilbotik bi eta Areatza, Arrigorriaga, Bedia, Durango, Ermua, Gatika, Lekeitio eta Zeberiotik bana; Gipuzkoatik bost: Arrasate, Donostia, Idiazabal, Irun eta Oriotik, hain zuzen be. Eta Araba eta Nafarroatik ipuin bana: Arabako Gaubeatik eta Nafarroako Lekarozetik, ipuin irabazlea.

Egileen profila

Egile gehienak (%70 pasatxo) gizonetakoak

izan dira, 12, hain zuzen be. Andrazkoak (%30 eskas) bialdutako 5 narrazio bakarrik hartu dabe parte.

Edadeari jagokonean, edade tarte zabaleko jentek bialdu ditu lanak lehiaketara: gazteena, 22 urteko neska bat izan da eta zaharrena 72 urteko gizonetako. Ha-ta guzti be, batz bestekoa heldua izan da: 42 urte. Batez be gizonen artean, batz bestekoa 50 urtekoa izan da-eta. Andrazkoen batz besteko adina barriz, 35 urtekoa izan da.

30 urte arteko egile gazteen 5 lan jasoz (%29,4), 30 eta 50 urte bitarteko 7 lan (% 41,1) eta 50 urtetik gorako egileak 5 lan bialdu dabez (%29,4).

begitu arratia ubide zeberio

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!
BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Aurreko hamabostaldiko irabazlea Mikel Urkixo izan da.

Hori egiteagaitik **Areatzako Bainuetxean** lagun birezko zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mallez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

PELOTEA

Beste kirol batzuetako jokalariek pelotan neurtuko dira Diman



antolatutako Dimeko Pelota Desafioa 2020ean.

Jaialdia 18:00etan hasiko da eta 6 bikotek hartuko dabe parte, 3 bikoteko talde bitan. A taldea, Herri Kiroletako kirolariak (Xabier Garcia "Utxu" eta Jon Loiolak), eskalataileak (Kosme Aldazabalek eta Aingeru Petralandak) eta futbolariak (Luis Prietok eta David Avilesek) osotzen dabe. B taldea barriz, bolariak (Juan Mari Aurrenetxe "Txirpu" eta Dabid Ibarra "Houston"ek), pelota eskolakoak (Aitor Loiolak eta Jose Mari Atutxak) eta mendi lasterketariak (Arkaitz Aurrekoetxea "Narru" eta Xabi Gonzalez "Errot"ek) osotuten dabe. Multzokako partiduak 12 tantura jokatu dira eta multzo bakoitzeko lehenengo sailkatuak, finala jokatu dabe 22 tantura.

Kinielea egiteko aukerea egongo da eta otzarea zozketatuko da. Kinielea irabazleak saria izango dau.

Erredakzioa

Herri kirolari, pelotari ohi, futbolari, eskalataile, bolo jokalarik, mendi lasterkari eta txirrindulariak, pelotan neurtuko dira urtailaren 5ean, Dimako plazako frontoian, Xumulueta pelota eskoleak

PELOTEA

Joko Alaik eta Lemoak txapel bana Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketan

Erredakzioa

Finalak abenduaren 20an jokatu ziran Galdakaon eta Iurretan. Joko Alaik hiru final jokatu eban. Bata Galdakaon, Kadete mailakoa, eta beste biak Iurretan, Gazte eta Nagusi mailan. Kadete mailan, Eneko Artaraz eta Arkaitz Eskuzak txapela lortu eben aurkariak 22-12 irabazita. Beste txapel bat be etorri zan Arratiara. Izan be, Lemoako klubeko Ander Elezkanok eta Imanol Arresek txapelak jantzi ebezan Nagusiak Berezi mailan.

Txapel biak Galdakaon lortu ebezan Zeanuriko eta Lemoako pelotariak. Kadete mailan, Joko Alaiko Eneko Artaraz eta Arkaitz Eskuza ziran faboritoak eta aurreikuspenari hutsik egin barik, erraz irabazi eutsen Aiznabarreta eta Arroita Galdakaoko Adiskide taldekoak.

Nagusiak Berezi mailako finala be Galdakaon jokatu zan. Lemoako klubeko Ander Elezkanok eta Imanol Arresek 22-16 irabazi eutsien Azpiri eta Madariaga Eloorriko bikoteari. Partidua gogorra

izan zan, baina Lemoakoak hobeto jokatu eben eta irabaztea lortu eben.

Iurretan txapeldunorde

Zeanuriko Joko Alaik Pelota Eskolakoak, Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketako beste final bi jokatu ebezan Iurretan. Gazteak mailan, Anton Erkiagak eta Maren Emaldik 22-18 galdu eben Zornotzako Xabier Beitia eta Aimar Morgaetxebarriaren kontra. Nagusien mailan, Beñat Etxeita eta Egoitz Gomez be txapeldunorde izateagaz konformau behar izan ziran etxean jokatu eben Atutxa eta Diezen kontra galduta.

Publikoaren erdia

Egun berean eta herri bitan jokatu ziran finalak eta frontoi bietarako finalerako sailkatutako klubetako jarraitzaileak zein final ikusi aukeratu behar izan eben. Hori gertatu jakien Joko Alaikoak. Hori dala-eta, zale batzuk Galdakaon eta beste batzuk Iurretan egon behar izan ziran eta ezin izan ebezan klubeko pelotari guztiak animau.

PELOTEA

Neskentzako be txapelketetara bideratutako entrenamentua egiten dabe Lemoan

Ainhoa Romerok eta Amaia Aldayk euren mailtako txapelketarik inportanteenak irabazi dabez. Biak entrenetan dabe Ander Elezkanogaz Lemoan, horretara zuzendutako entrenamentuetan.

Erredakzioa

Izan be, Lemoako Pilota Eskoleak neskai eskupelotan teknifikazio zentroetako entrenamentua eskaintzen deutse. Elezkanok Bizkaiko beste herrietako neska pelotariak Lemoan entrenetan animau gura dauz, danak alkarrengaz entrenau ezker maila hobea lortzean dalakoan.

Badira urte batzuk Lemoako Pilota Eskoleak entrenamentu mota hau egiten dauala mutlakaz. Ander Elezkanok bera da mutilen entrenatzaile. 2019-2020 denporaldia hastear egoanean Lemoako Pilota Eskolako zuzendaritza batzordeak, neskentzako teknifikazioa "aurrera ateratea ebatzi eban. Horretarako ni aukeratu ninduen eta hemen nago pozik eta gogo handiagaz" azaldu deutso BEGURI Elezkanok. Mutlak martitzen eta eguenetan entrenetan dabe eta neskak astelehen eta eguztenetan.

Txapelketari begirako entrenamentua

Entrenamentu mota honeguz, talentua erakutsi daben pelotariak azkar eta asko hobetuten dabela dino Elezkanok. Denporaldiaren hasieran, dagozan txapelketen egutegi bat egiten dabe eta txapelketa horretarako entrenamentu espezifikoa egiten dira. "Txapelketea pelota bigunagaz jokatu bada, entrenamentuak pelota bigunagaz dira; pelota gogoragaz bada, entrenamentuak be bai". Eta holan txapelketearan

baldintzetan, teknika landuten dabe.

Neskentzako teknifikazioak daukan beste bentaja bat da neskak entrenau ahal izatea. Izan be, leku gehienetan maila honetako pelotari gitxi egoten dira eta

neskak mutlakaz entrenau behar izaten dabe. Euren txapelketa espezifikoa begira neskakaz entrenetan, "maila handiagoa hartzean dabe eta euren jokoa arinago hobetuten dabe". Romero eta Aldayri begiratzea besterik ez dago.



Ainhoa Romero, Ander Elezkanok eta Amaia Alday.

PELOTEA

Amaia Aldayk Bankoa Credit Agricole-DV Txapelketea irabazi dau

Erredakzioa

Dimoztarrak 14-22 irabazi eutsan Leire Garairi abenduaren 22an Zaratzen jokatu Lau eta Erdiko finalean. Torneoaren XXVIII. edizioa izan zan, andrazkoentzat bigarrena. Finalera, Zeanuriko Lander

Erkiaga be sailkatu zan Promesa mailan. Baina De la Fuente-Erkiaga bikoteak 22-14 galdu eban, Alberdi II.a eta Morgaetxebarriaren kontra.

Aldayk Garairiaren kontra jokatu partidua sano bardinduta egon zan erdira arte, baina gero

askoz hobeto egon zan arratiarra, irabazi eta txapela lortu eban arte.

Lander Erkiaga eta De la Fuente be kalidateko partidua jokatu eben eta markagailuan 12-12 be egon ziran. Baina eskoia eskua minduta eukan Zeanurikoak eta Alberdi eta Morgaetxebarria nagusitu jakien.



AZKOREA

Aitzol Atutxa Bizkaiko txapeldun eta Irati Astondoa Euskal Herriko txapeldunorde

Erredakzioa

Bilboko Areatzan jokatu zan Bizkaiko Aizkolari Txapelketea abenduaren 22an eta Aitzol Atutxa izan zan garailea, Bizkaiko 13. txapela lortuz.

Lau kanaerdiko, 60 ontzako bi eta oinbiko bi ebagiten 25 minutu eta 45 segundo behar izan ebazan. Bigarrena, Julen Larrea izan zan 29 minutu eta 47 segundoko denporea eginda. Hirugarrena, Hodei Ezpeleta (32 minutu eta 49 segundo), laugarren David Naredok egin eban, eta bosgarren eta seigarren Beñat

Lekuek eta Xabier Garzia "Utxu" lemoztarrak hurrengo hurrengo.

Irati Astondoa txapeldunorde Euskal Herrikoan

Donostiako Trinitate plazan barriz, Euskal Herriko Emakumezkoen Aizkolari Txapelketa Nagusia jokatu zan. Irati Astondoa zeanuriztarrek bigarren egin eban, Nerea Sorondoren atzetik, 36 ontzako bost enborrak 11 minutu eta 5 segundotan ebagita. Txapeldunak 55 segundo gitxiago behar izan ebazan lana amaituteko. Maika Aristegik egin eban hirugarren eta Itxaso Onsalok laugarren.



Aitzol Atutxa eta Irati Astondoa.

FUTBOLA

Urtea indartsu hasteko gogoz

Erredakzioa

Abenduaren 14an Bizkerre taldearen kontra jokatutako partidua 2-0 galdu eban Arratiak. Andrazkoen ligako taldeak, ez dauz emaitzarik onenak lortu atzen partiduetan eta laugarren postuan dago 13 jardunaldiren ostean, 24 puntugaz. Datorren partidua, Aurrera Vitoria taldearen kontra izango da, hilaren 11-12ko astegoienean.

Gizonezkoen A taldeak barriz, hasikera eskas baten ostean, hobetu egin dau. Atzen partidua, abenduaren 21ean jokatu eban Gallarta Aren kontra eta 1-2 irabazi eban. Datorren partidua Moraza Aren kontra jokatuko dau urtailaren 5ean 11:30ean etxetik kanpo. Hamalau jardunaldiren ostean, hamahirugarren postuan dago 16 puntugaz.

Arratia B

Nesken ligako Arratia B hirugarren postuan dago 14 jardunaldiren ostean 31 puntugaz. Atzen partidua, abenduaren 22an jokatu eban etxean, 4-0 Basauriko Kimuak taldeari irabazita. Datorren partidua, urtailaren 5ean 16:00etan jokatuko dabe Adiskideak taldearen kontra etxetik kanpo.

Arratia B mutilen taldeak be irabazi egin eban etxean atzen partidua 3-1 Berriatuko taldearen kontra, abenduaren 21ean. Datorren partidua, urtailaren 4an izango da 17:15ean eta Zorrontzako taldea izango dau aurrez aurre Urbietan. Bederatzigarren dira sailkapenean 14 jardunaldiren ostean, 20 puntugaz.

LemoaHarrobi

LemoaHarrobik galdu egin eban jokatutako atzen partidua, 2-0 Etxebarria Aren kontra. Datorren partidua, urtailaren 4an 17:00etan jokatuko dau, Arlonagusian Solokoetxe A taldearen kontra. LemoaHarrobi hamalaugarren dago sailkapenean, 14 jardunaldiren ostean, 14 puntugaz.

PELOTEA

Iparraldeko lehenengo mailako ligako trinkete txapela jantzi dabe Ekhi Ziarrustak eta Inhar Ugartek

Dimoztarrak eta getxoztarrak 40-37 irabazi eutsien Iban Anchordoqui eta Bixente Garat Atzarri izeneko bikoteari abenduaren 15ean jokatutako finalean.

Erredakzioa

Bizkaitarrak Hendaiako klubeko Endaiarrak taldean dagoz eta Iparraldeko afizionadu lehenengo mailako ligan jokatu dabe. Oin dala urte bi, hirugarren mailan hasi ziran eta lehenengo mailara igon eta be- rra irabaztea lortu dabe.

Finala gogorra izan zan, Zudairekoak be sano maila ona daukielako. Hasikeran bizkaitarrak ipini ziran aurrean, baina gero, Atzarrik "takadea" egin eban. "Emoten eban eurak irabaziko ebela partidua, baina atzenean partiduan sartu eta bueltea emotea lortu genduan".

Iparraldeko ligan

Iparraldeko ligak fase bi daukaz. Lehenengo multzokoa jokatu eta "bigarren moduan pasau ginan hurrengo fasera. Hurrengo fasean danak irabazi genduzan oso ondo. Eta gero, laurdenak, finalerdiak eta finala. Esan daiteke gogorrena finala izan dala, besteak eroso irabazi genduzan" azaldu deutso BEGITURI Ekhi Ziarrustak.


Iparraldeko 8 onenak, Frantziako Txapelketea jokatuten dabe. Ipa-

rraldekoa irabazita euren helburua bete arren, "seguruenik" Frantziakoa be jokatuko dabe garagarriaren erdikaldera. Izan be, fase finalean sartuko litzatekez, finalerdia eta finala jokatuteko, partidu bi baino ez. Eta "afizionadu maila baino apurtxo bat gehiago garala gura dogu erakutsi" dino dimoztarrak.

Profesionalak saltoa egitea gustauko litzakion arren, gatxa dala uste dau Ziarrustak. Bere ustez, "Hegoaldeko pelotariak ez deutsee graziarik egiten pelota enpresariari" eta profesional izatearena ez dago euren esku. Baina behintzat, euren partetik egin eitekeana, egin dabe.

Txumuluxuetako entrenatzaile

Trinketeaz gainera, pelota beste modalidade askotan jokatuten dau Ekhi Ziarrustak. Dimako Txumuluxueta Pelota Eskolako entrenatzailea be bada. Bertan, pelotari lotutako gauza desbardinak antolatuten dabiz aspaldi honetan. "Atzen urteotan hartu dogu dinamika hori, pelota munduan beti, baina gauza diferenteak egiten eta jente diferenteagaz. Pelotea bizirik mantentidu daiten".



Inhar Ugarte eta Ekhi Ziarrusta.

| | |
|---|--|
| <p>JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p> | <p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea</p> <p>Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p> |
|---|--|

ANTZERKIA

Yllana konpainiaren Gag Movie umorezko antzezlanaren Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Urtailaren 3an, 20:00etan da hitzordua. Yllanakoak, umorez eta zorrotasunez zinea zelangoa dan, zelan egiten dan eta zelan bizi eta gozaten dan kontetan deuskue lan honetan.

Gag Movie, denpora eta fotograma bakarraren muga estuetan harrapatuta dagozan lau pertsonajeren istorioa da. Zinegile talde bitxiak, ikusleak batera, baije dibertigarria abiatuko dabe zinearen momentu ikonografikoetan zehar.

Yllana konpainia

Yllana 1991n sortu zan, kei-

nu bidezko umorezko antzerki konpainia lez. Egun, alde batetik, ikuskizunak, ekitaldiak eta ikus-en-



tzunezko formatuak sortu, ekoiztu eta bananduten ditu, eta, bestetik, antzerki espazioak kudeatzen ditu eta hainbat proiektu garatzen ditu kulturearen arloan. Yllanak 28 urteotan 31 antzerki ikuskizun egin ditu. Batzuk aitzearren, *Muu!*, *Splash!*, *Lo mejor de Yllana* eta *Primitals*.

Madrilgo konpainia honek sari asko jaso ditu eta sano ezaguna da estatu eta nazioarteko mailan.

KOMIKIA

Komikiak egiteko kolaboratzailea behar dau BEGITU Aldizkariak

Erredakzioa

Komikia sailerako, hiru komikigile izaten ditu BEGITUk, hiru zenbakirik behin, komikia bialtzen dabenak. Horreetako bat Ibai Pujana izan da eta hamar urte ingurutan komikia bialdu ostean, geldiunetxo egitea ebatzi dau. BEGITUk eskertu

gura deutso "hainbeste irribarre ateratea, aktualidadearen hausnarketa kritikoagaz".

Hori dala-eta, kolaborazioa egiteko prest dagoan komikigileen bila dabil BEGITU. Hartu-emonetan ipinteko, begitu@topagunea.com helbidera idatzi daiteke.

DIMETAL

Dimetalfestek Soziedad Alkoholika eta Killus taldeak iragarri ditu seigarren edizinorako

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 25 eta 26an izango dan arren, antolakuntza hasi da parte hartuko daben taldeen izenak jakitera emoten.

Soziedad Alkoholika (SA) talde ezagun eta beterranoa da eurretako bat. SAK 1988an hasi eban bere ibilbidea eta ordutik 12 disko ateratu ditu. "Thrash soinuak, hardcore eta metala nahasteko era oso berezia eta personala daukie, benetako maisulana. Abesti irmoak eta esplizituak, letra gogorak, zuzenak, beti konpromiso soziala eta aldarrikapenak" adierazoten dabenak, hain zuzen be.

Levanteko Killus taldea be egongo dala iragarri dabe. Taldeak hogeituroko ibilbidea dauka eta sei disko

kaleratu ditu. "Glam-dark eta metal industrialaren arteko nahasketaren aldeko apustua eginda, mimoz zaindutako antzerkirako estetika aukeratuz, Marilyn Manson edo White Zombie taldeen eraginaz, talde erakargarria" dala dinoe antolatzailleak. Beraz, "freak-show" kutsua daukan rocka gustuko daukieneztat, "talde hau itzela izango da".

30 talde baino gehiago

Horreezaz gainera, Cult of Misery crust/death metal laukote bilbotarra, Gemikako Etorkezun Beltza heavy metal taldea eta Bermeoko Elizabetz talde hasibarria be egongo dira Diman beste batzuen artean. Izan be, aurren, 30 talde baino gehiagok joko dabela Dimetal jaialdian baietzuta dabe antolakuntzakoak.

ANTZERKIA

Mari Errauskin ipuin klasiko gaurkotua ekarriko dau Igorrera Glu Glu-k

Erredakzioa

Antzezlanaren 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat pentsautu dago eta urtailaren 4an, 18:00etan, ikusi ahal izango da Igorrera Lasarte Aretoan.

Glu Glu konpainiak hainbat ipuin klasiko moldatu ditu antzerkirako eta Mari Errauskin da horreetako bat. Ipuin moldaketa honek, umeen arteko alkatasuna

gaitzat hartu eta eskoletan eta umeen artean gehigikeriak gertatzen diranean mutu ez geratzea zein garrantzitsua dan azpimarratzen dau.

Ipuinaren bersino honen egilea Galder Perez da eta Maitane Zalduegi Viar antzezlanaren zuzendaria.

Sinopsia

Norak urteurren eguna ospatzeko

sekulako festa antolatu dau. Nora eta bere lagunak primeran pasetan dabiz festara Lys heldu arte. Lys gelako liderra da eta neskato harroputza. Lysek festako dana txarretsiko dau: jana eta edana, dekorazioa eta Norak jasotako opari guztiak. Eskolako umeak Lyssen gehiegikeriak azper-asper eginda dagoz eta ebatzi bat hartu dabe: ez deusie gehiago Lyseri obedituko.

Zorionak eta urte barri on!

Erredakzioa

ARRATIAKO VDALEN MANKOMUNITATEA

Elxalde Kalea, 49 / 48140 IGORRE / Tfnoa. 94 631 17 17
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org / www.arratia.eus

ZINEA

Narkotrafikoaren sorrera kontetan dauan film kolonbiarra Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Urtailaren 9an, Ciro Guerrak eta Cristina Gallegok 2018an zuzendutako *Pajaros de verano* film kolonbiarra ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan, 20:00etan.

Pelikulea benetako gertaeretan oinarrituta dago eta Kolonbian, 1970eko hamarkadan zelan hasi zan narkotrafikoa kontetan dau. Sasoi haretan, AEBn kultura hippiea nagusitu zan eta, beragaz batera, marihuana eskaera. Holan, eskaerari erantzuteko, Kolonbiako nekazariak "enpresari" egin ziran. Guajirako basamortuan, Wayuu herriko familia batek ekimen honen lidergoa hartuko dau. Baina diruak indarkeria be ekarriko dau, euren bizitzak arriskuan eta euren kultura desagertzeko zorian ipiniz.

Gidoia, Maria Camila Arias eta Jacques Toulemonde-rena da eta filmak, besteak beste, igazko La Habanako zinemaldiko pelikula onenari saria jaso dau.



AREATZA MUSIK & BEER

Musik & Beer-ek Kris Barras, The Electric Alley, Moonshakers eta Bad Touch taldeak iragarri ditu

Erredakzioa

Jaialdiaren antolakuntzeak abenduan emon eban jakitera maiztaren 29an eta 30ean izango dala jaialdia. "2019a egonkortze urtea izan zan, inoiz baino talde gehiago eta jente gehiago hurbildu zan herrira. Hazkunde jasagarri eta iraunkor honetan aurrera goaz, indartsu!" dino antolatzaileak. Aurrerantzean jaialdia antolatzeko ardura, Areatza Musik and Brewing alkarte sortu barriak hartu daua adierazo dabe, eta oin artean arduera euki dauan AGE-Beerlaroko kideak be parte hartze zuzena izaten segiduko dabela. Jaialdia herriko beste esparru batzuetara zabaldu-

teko intenzinoa be agertu dabe.

Egitarauari jagokonez oin artean izan dauanaren antzeko egiturea izango dau. Talde ezagunak ekarteko beharrea dabiz eta jakitera emon dabenaren arabera Kris Barras Band eta Bad Touch Erresuma Batuko taldeak, Algortako Moonshakers laukotea eta The Electric Alley talde espainiarra izango dira Areatzan, besteak beste.

Aurkezpena martiaren 28an

Guzti honen barri zehatzagoa, martiaren 28an Areatzan egingo dan aurkezpenean emongo dabe. Igaz lez, jai bategaz emongo dabez maiatzeko jaialdiko zehetasunak.



LIBURUA

Ahoztar Zelaietaren *El narco-oasis vasco* liburuaren aurkezpena

Erredakzioa

Urtailaren 7an, 18:30ean, Ahoztar Zelaietak *El narco-oasis vasco* liburu aurkeztuko dau Zeanurin, Eguzkiolako lokalean. Kazetariak narkotrafikoaren sareak Euskadin daukien funtzionamentua deskribidu eta polizia, politikari eta banka-

riakaz daukiezan loturak azaltzen dauz liburuan. Baita kasuaren inguruko "impunidad judiciala". Pepe Rei eta Egin, Ardi Beltza eta Kalegorriako taldeen ikerketetatik abiatuta, Ahoztar Zelaietak narkotrafikoagaz zerikusia izateagaitik ikertu edo zigortutako politikarien eta polizien kasu ugari aztertzen ditu liburuan.

FILMA

Gabriel Arestiren ipuin baten oinarritutako *Mamarro* film laburra zuzendu dau Ibon Izak

Youtuben ikusi daiteke Dimako Ibon Iza zuzendariaren azkenengo film laburra. Diman grabauta dago eta, Izaren arabera, "umeen inozentzia, aurreretxiez eta bildurrez" egiten dau berba.



Jare Iza, Enara Gallastegi, Olatz Olmo, Iradi Iza eta Amaiur Gorrotxategi.

Erredakzioa

"Sortzeko gogoak eroan gaitu sortuntzara, ez gara sorginak baina ekinaren ekinez beteten doguz eguneroko amets txikiak. Hemen daukazue gure azken film laburra, guretik, gureakaz ekoitzia eta egosia. Euskeratik eta euskeraz" dino zuzendariak. Gabriel Arestiren *Mundu munduan* liburuako *Joko arriskutsuak* ipuinean dago oinarrituta eta Josu Goikoetxea-

ren *Zer luzea negu hau* liburuako *Mamarro* poematik abiatuta.

Aktore lanak, Amaiur Gorrotxategi, Iradi Izak, Olatz Olmok, Enara Gallastegik, Jare Izak, Txomin Gorrotxategik, Txaber Lazpitak, Amaia Haranburuk eta Zefe Ziarrustak egin ditue. Zuzendari laguntzailea Joseba Rodriguez da, Urtzi Uriartek ekoiztu dau filma eta Imanol Garcia izan da argazki zuzendaria. Musikea, Iban Urizarrena da.

DUNBA

Lekittoko urtekerea

Igorreko eskolako 6. mailako ikasleak

Hara joan ginen itsuan denok pausuan pausuan oso gustura ibili ginen Lekittoko herrituan.

Kofradia ta faroa ibilbide oparoa mila ekintzaz beteta dugu memoriaren zuloa.

Guztiok arrapaladan bat hemen ta bestea han egunez lotan egoten ginen eta gauetan parrandan.

Denboralea gogoan gu maisu maistren ondoan haizeak behintzat Ondarruraino ez zuen inor eroan.

Diskoteka bat erdian arrain freskua herrian berriro ere joango gara gu Lekittora agian.

Ene Lekitto Lekitto maitasunez gara ito gure bihotzen erdi erdian gorde zaitugu betiko!!



AGENDEA

URTAILAK 2 AREATZA

Urtailaren 6ra arte Bonodenda. 30 euroko balio daukien 400 bono 25 eurotan salgai udaletxean, herriko Orburu Merkatarien Elkarteko komertzioetan erabilteko.

18:30etik 21:00etara, odola emoteko Osakidetzako autobusa Areatzan egongo da. Pedro Antonio Añibarro parkean.

19:00etan, *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentala udaletxeko Areto Nagusian.

ARRATIA

Neguleku ibiltariak Arratian zehar. Areatza, Igorre eta Lemoako Gaztelekuak antolatuta.

ARTEA

18:00etan, Mimaia Antzerki Taldearen, *Peloloco* txotxongilo ikuskizuna Kultur Etxean.

IGORRE

10:00etatik 20:30era, "Gabonetan kulturea oparitu!" Lasarte Aretoko bazkide txartela 5 euro merkeago egin edo barriztu. Urtailaren 3ra arte Kultur Etxean.

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Motxoganen tailerrak aterpean.

DIMA

Hilaren 3ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea. *Yoga, Eskulanak, Pilates, Entrenamendu funtzionala, Gimnasia hipopresioa* eta *Zunba* ikastaroetan. Udaletxean.

Hilaren 7ra arte, 3. adinean ariketa fisikoa sustatzeko ikastaroan izena emon daiteke udaletxean. Ikastaroa urtailetik martira.



LEMOA

11:00etatik 13:30era, Ludotekea zabalik.

19:00etan, berbaldia *Zer gertatzen ari da Iruñea-Veleian? Euskalduntze berantiarra?* Karabie Gaztetxean.



ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, urtailaren 5era arte, oin dala 50 urte Zeanurin antzetzutako *Usadio zaharreko ezkontza* titulupeko erakusketea Eguzkiolan.

Urri lehenengoaren 27an izango dan Gorbeia Suzien lasterketarako izen emotea zabalik www.gorbeiasuzien.eus webgunean.

URTAILAK 3

BEDIA

17:00etan, urtekera familiarra Arriaga Antzokira *Ali Baba eta berrogei lapurrak* operara.

IGORRE

20:00etan, Yllana Teatroaren *Gag Movie* Lasarte Aretoran.

LEMOA

2012 eta 2015 bitartean jaiotakoentzako ludotekako urtekera.

ZEANURI

09:00etan, Iruñeara urtekera.

ZEBERIO

19:00etan, zinea euskeraz *Leo da Vinci: Mona Lisa misioa* udaletxean.

URTAILAK 4 ARANTZAZU

Herri urtekera Gasteizera: izotz pista, katedrala...

IGORRE

18:00etan, antzerkia *Mari Errauskin* Lasarte Aretoran.



URTAILAK 5

AREATZA

18:30ean, Erregetako Kabalgatea. Karpon hasita eguraldi ona egin ezker, ostean plazan.

ARRATIA

08:30ean, Igorreko Axular Herriko Tabernan. Presoen aldeko gazte mendí martxea Gorbeia. Kotbez Pagomakurrera. Ernaik antolatuta.



Wicked Wizzard eta Lukiek Mungiaiko taldeak kontzertua eskainiko dabe Igorreko Kiñu Gaztetxean

Urtailaren 10ean izango da 21:00etan hasita.

Wicked Wizzard taldea 2017an sortu zan Mungian eta 2018an atera eban bere lehenengo diskoa. 2019an, Bilbo Uria Nazinoarteko Pop-rock Lehiaketan hainbat sari irabazi ebazan, sari nagusia tartean, eta sarietako batek, Gasteizko Azkena Rock Festivalen joteko aukerea ekarri deutso. Mikel Bidaurrezagak (bateria), Iñigo Jauregik (bajua) eta Unai Minguezek (gitarra) osotuten dabe Wicked Wizzard.

Lukiek taldea, Josu Ximun (abotsa eta gitarra), Antton Goikoetxea (bajua) eta Christian Rodriguezek (bateria) osotuten dabe. Lukiek taldea 2015ean sortu zan, eta Zea Mays eta Belako taldeakaz jo dau. Disko bat dauka klean *Lukiek#1* izeneko, 2019an grabatutakoa.

Lendakaris Muertos-en kontzerturako sarrerak salgai

Zezeilaren 8an, Lendakaris Muertos taldeak Kiñu Gaztetxean kontzertua joko dau. Sarrerak salgai dagoz Axular Herriko Tabernan eta lendakaris.com webgunean.

BEDIA

18:30ean, Erregeen Kabalgatea, aurretik txokolatea bananduko da.

DIMA

Dimako koruak egoitza bietan emonaldia eskainiko dau.

18:00etan, Txumuluxuetak antolatuta, Dimako Pelota Desafioa 2020. Arlo desbardinetako kirolariak pelotan. Plazako frontoian.

IGORRE

18:30ean, Erregeen Kabalgatea Mandoia kaletik.

LEMOA

11:00etatik 15:00etara, Lemoa Panda Desert-en eskutik, autoaren aurkezpen ofiziala eta Saharako basamortuko umeentzako erropa eta oinetako bilketea. Gaztetxeko parkinean. Jatekoa, edatekoa eta sorpresak egongo dira.



23:00etan, Stankeik-en kontzertua Karabie Gaztetxean.

URTAILAK 6

DIMA

Hilaren 6tik 10erako astean, urtailetik martiarako udal ikastaroak hasiko dira.

LEMOA

Garbiketea Karabie Gaztetxean.

URTAILAK 7

AREATZA

16:00etatik 20:00etara, Udalak antolatuta, desfibriladoreak erabilten ikasteko formazio saioa. Izena 94 673 90 10 telefonoan emon. Plaza mugatuak.

LEMOA

Hilaren 10era arte, Ludoteka-Familia Lagunen izena emoteko epea. Hilaren 17ra arte, Lemoa Pausoz Pauso erronkan izena emoteko epea.

ZEANURI

18:30ean, Ahoztar Zelaletaren *El narco-oasis*

vasco liburuaren aurkezpena Eguzkiolan.

URTAILAK 9

DIMA

18:00etan, Makatzak talde ekologistearen batzarra. Batzar Gelan.

IGORRE

20:00etan, zinekluba *Pajaros de verano* Lasarte Aretoran.

URTAILAK 10

AREATZA

19:30ean, Ilaski Serranoren eskutik, *Euskaldia 2020* aurkezpena. Udaletxeko Areto Nagusian.



IGORRE

18:00etan, *Autoconocimiento y autoestima ikastaroa* Inma Merino de Castoren eskutik. Kultur Etxean.

URTAILAK 11

IGORRE

22:00etan, zinea *Ventajas de viajar en tren* Lasarte Aretoran.

URTAILAK 12

IGORRE

17:00etan, zinea *Bobby el erizo*; 19:30ean, *Ventajas de viajar en tren* Lasarte Aretoran.

URTAILAK 15

LEMOA

18:00etan, Monica Nuñezen eskutik, *Soñar, crear y crear* ikastaroa Lemoako Kulturugunean.



19:00etan, Jai Batzordearen urteko lehenengo bilera udaletxean.

URTAILAK 16

AREATZA

09:00etatik 13:00etara, Udalak antolatuta, desfibriladoreak erabilten ikasteko formazio saioa. Izena 94 673 90 10 telefonoan emon. Plaza mugatuak.

LEMOA

20:00etan, Herri Txiki, Infernu Handi ekitaldia kiroldegiko kantuan. Bideo proiektzioa, Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadiren monologoak eta Sebastian Lizasoren bertsoak.

AKIMIKO

I
m
a
n
O
l
a
t
u



IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalgia, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak dira. Deitu 657 777 542 zenbakira.

TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

DANERIK

LONJEA ALOKAIRUAN HARTZEAN DOT

Lemoan 80 eta 150 metro bitarteko lonjea behar da alokairuan hartzeako. Deitu 617 046 429 telefonora.

BASERRI BILA

Lagun bi, alokairuan hartzeako baseri bila gabiz. Deitu 690 984 588 edo 678 902 509 telefonora.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako

Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezker, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emailean, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Gag Movie* antzezlanerako.

Abel Ariznabarreta (Dima)
Miren Madariaga (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Mari Errauskin* antzezlanerako.

Amaia Iruskietta (Bilbo)
Harriketarrak (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
argitaletxeak

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 487 830 • 609 200 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEXEA
Tel.: 94 631 52 83
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutejatexea@hotmail.com

Pinturas Assatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkara egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

